



Datozen hilabeteetan Ikastola guztion artean 7. Batzarrari ekingo diogu, hamarkada honen bukaerara bitartean Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatibak hartuko duen norabidea zehazteko.

Dakizuen moduan, herrigintza, euskara eta hezkuntza arloetan erronka handiak ditugu aurrean. Ezinbestekoa da guztiok batera hausnartzea eta erronka horiei nola heldu elkarrekin erabakitzea.

Horretarako, Ikastolen Elkarteak oinarrizko txostenak prestatu ditu eta Ikastola bakoitzean aukera izango dugu egoki deritzogun ekarpenak egiteko.

IKASTOLEN 7. BATZARRA

Honekin batera jasoko dituzue oinarrizko txostenak, hiru atal nagusitan banatuta:

- Nondik gatoz
- Non gaude
- Nora goaz

Lehenengo bi txostenak garrantzitsuak dira orain arteko ibilbidea ezagutzeko, baina hirugarrena da garrantzitsuena, aurrera begirako norabidea zehaztea delako, horixe baita, azken batean, 7. Batzar honen helburua.



Txostenen laburpenak elkarrizketa formatuko bideoetan ere ikusi daitezke:

NONDIK GATOZ

7. Batzarretik gaur egun arte baliatu diren plan estrategikoetan oinarritu da lankeeta, eta dokumentu horietan jarritako helburuetatik zeintzuk eta zein mailatan bete diren aztertzen da. Alor pedagogikoari dagokionez, euskal curriculum-a eta bertan oinarritutako material sorkuntza, hizkuntza proiektua, digitalizazio plana, aholkularitza eta prestakuntza atalak jorratzen dira.

MULTIMEDIAK

Bideoa ▶

NON GAUDE

Ikastolen, ikastola mugimenduaren eta ikastolen Elkartearen egungo argazkia da berria, baina baita hezkuntzarena orokorrean, eta ingurune sozioekonomikoarena ere; baina nahiz kanpoko argazkiak, alegia, ikastolen mugimenduaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko atalek hartzen dute dokumentuaren lehenbiziko zatia. Bertan aztertzen dira ikastola Eredua, Ikastolen Elkartearen bera, lurraldetasuna eta ikastolen irismena.

MULTIMEDIAK

Bideoa ▶

NORA GOAZ

Mugarri edo helburu batzuk ezartzen ditu, eta horietara iristeko bideak proposatzen. Hasieratik aipatzen da proposamen honek baduela aurrekaririk, hain zuzen ere, 2020-21ean Euskal Hezkuntza Sistemak izen behariko lituzkeen ezaugarrien gainean ikastolek landutako Bihar endekalogoa. "Hari da gure jomuga, Euskal Hezkuntza Sistemarako eta Euskal Herriko Ikastolen mugimendurako", azpimarratzen da.

MULTIMEDIAK

Bideoa ▶

Txintxirri Ikastolan saio bitan banatuta egingo dugu 7. Batzarrerako azalpen eta hausnarketa:

Apirilaren 11n, 18:00etan: azalpena

Apirilaern 18an, 18:00etan: ekarpenak

Ikastolako familia, bazkide laguntzaile, ikasle-ohi eta langile guztiak zaudete gonbidatuta saio horietara. Guztion ekarpena da garrantzitsua.



7ª asamblea de las Ikastolas

A lo largo de los próximos meses todas las Ikastolas nos embarcaremos en el proceso de reflexión y debate de la 7ª Asamblea para, entre todas, definir el rumbo de la Cooperativa Europea Euskal Herriko Ikastolak para los próximos años.

Como sabéis, tenemos grandes retos en el ámbito del euskera y la educación. Es imprescindible que todos/as debatamos y decidamos en conjunto cómo abordar estos retos.

Para ello, la Federación de Ikastolas ha elaborado los documentos base que os adjuntamos para el debate y en cada Ikastola tendremos la oportunidad de hacer las aportaciones que consideremos oportunas:

- De dónde venimos
- Dónde estamos
- Adónde vamos

Los dos primeros documentos son importantes para conocer el recorrido hecho hasta ahora, pero el tercero es el más importante, porque es el que determinará la dirección que tomará el movimiento de las Ikastolas a partir de ahora, que es, en definitiva, el objetivo de esta 7ª asamblea.

Los resúmenes de los informes también se pueden ver en vídeos en formato de entrevista en la página web <https://7batzarra.ikastola.eus/es>

En Txintxirri Ikastola vamos a desarrollar el proceso de información y debate en 2 sesiones que tendrán lugar en la Ikastola los días 11 y 18 de abril a las 18:00 horas.

Estáis invitados a estas sesiones todas las familias, socios colaboradores, ex alumnos y trabajadores de la ikastola. Es fundamental la aportación de todos los colectivos

